IVAF EIEI
Lanbide Heziketako Etorkizuneko Ikaskuntzen Euskal Institutua
Instituto Vasco de Aprendizajes Futuros en la Formación Profesional

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA
LAN ETA ENPLEGU SAILA

# KEEPeko IZENA EMATEA

Bi modu daude Konpetentziak Ebaluatzeko eta Egiaztatzeko Prozeduran izena emateko, bi kasuetan ERREGISTROA eginda eduki behar duzu **IKASGUNEAN**, eta ondoren adierazitako inskripziorako dokumentazioa prest:

a) Erroldatze-ziurtagiria edo bolantea (Zure udalak elkarreragingarritasunik ez badu soilik)
b) Lan-bizitza (soilik 5 urte baino lehenagoko lan-esperientzia aurkeztu nahi baduzu).
c) Ziurtagiria (k); ziurtatu LANBIDE ETA LANPOSTUAK bat datozela deialdiaren **VII. eranskinean** adierazitakoekin:
   - Soldatapekoentzako enpresa-ziurtagiria.
   - Norberaren konturako langileentzako zinpeko aitorpena.
   - Langile boluntario edo bekadunentzako ziurtagiria.
   - Gainerako kasuetarako zinpeko aitorpena (enpresa-ziurtagiririk eduki ezin duten pertsonak).
d) Lanbide eta prestakuntza historia.
e) Prestakuntza ez-formala.

Dokumentuen ereduak hemen daude: https://ivac-eei.eus/eu/konpetenzien-aitorpena/

## 1. AURREZ AURREKO izena ematea

Aurrez aurre eman dezakezu izena, **II. Eranskina** ( Informazio-, orientazio- eta inskripzio-zentroak) adierazitako edozein zentrotara joanda. Bertan, prozesua osatzeko beharrezko orientazioa jasoko duzu.

## 2. ONLINE izena ematea

Izena online ere eman dezakezu, **IKASGUNEA** plataformaren bidez. Horretarako, plataforman erregistratu, ADMINISTRAZIO-PROZESUAK ETA LAGUNTZAK klikatu, KEEP hautatu eta Erabiltzailearen Eskuliburuan adierazitako urratsak jarraitu beharko dituzu prozedura osatzeko.

